

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia Dokumentuak eskuratu, kontsultatu eta erreproduzitzeko barne-arauak

I. ARETOETARA SARTZEA

Baldintza orokorrak

1. Herriar guztiek libreki eta doan eskuratzen eta kontsultatzen ahal dituzte Artxiboaren zainzapeko funts dokumental eta bibliografikoak, betiere nortasuna frogatu ondotik. 16 urtetik beheitikoek heldu batekin joan beharko dute.
2. Funts dokumentalak Kontsulta Aretoan kontsultatzen dira, eta funts bibliografiko eta hemerografikoak Liburutegiko Irakurketa Aretoan.

Identifikazioa

3. Aretoetara sartzeko, erabiltzaileak Harreralekuko mostradorean erregistratuko dira. Lehenbiziko aldian, nortasun agiri nazionala edo nortasuna frogatzeko agiria aurkeztu beharko dute. Sisteman erregistratu ondotik, ikertzaile-zenbakia esleituko zaie, aurrerantzean egiten dituzten bisitetan identifikatzeko.

Segurtasuna

4. Debeku da aretoetara sartzea berokiak, poltsak, boligrafo edo errotulagailuak, objektu zorrotzak, karpeta edo dokumentu-zorroak, koadernoak, liburuak, jakiak, edariak eta, oro har, dokumentuak kaltetzen ahal dituen edozein objektu.
5. Aretoetara sartu baino lehen, erabiltzaileek armairu indibidualetan edo jantzitegian gorde beharko dituzte baimenduta ez dauden jantzi eta objektuak, eta utzitako guztia hartu beharko dute instalazioetatik irten aurretik.
6. Honako hauek, ordea, aretoetara sartzen ahalko dira: orri solteak; arkatzak; eta ordenagailu eramangarriak eta gailu elektronikoak, isilarazita eta babes-zorrorik gabe, salbu eta aretoko arduradunaren baimena bada.
7. Artxiboko langileek erabiltzaileek daramaten materiala aztertzen ahalko dute, aretoetara sartzean zein irteteen.

Languneak

8. Erabiltzaileek aretoetan kontsultarako prestatutako langune indibidualetan egiten dituzte beren kontsultak. Harreralekuko mostradorean erabiltzaile

bakoitzari langune bakar bat esleituko zaio. Lan-mahaietan ez da zaintza-kameraren ikuspegia oztopatzen duen objekturik utziko.

9. Artxiboaren jabetzako ekipamendu informatikoak dituzten languneak aplikazio informatikoak erabili eta kontsultatzeko baino ezin izanen dira erabili. Debeku da jatorrizko dokumentazioa kontsultatzea haietan. USB portuak eta ordenagailu horien disko-unitateak erabiltzeko, aretoko arduradunaren baimen espresa beharko da.
10. Aretosan diren gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez egiteko, isilik egoten eta portaera egokia izaten saiatuko gara.

II. DOKUMENTUEN KONTSULTA

Deskripzioko tresnak

11. Aretosetan badira funts dokumentalen deskripzioko tresnak eta bibliografia, paperean zein euskarri informatikoan, zuzeneko kontsultak egiteko; Artxiboko langileei eskatzen ahalko zaie horiek erabiltzeko laguntza.
12. Horiek erabiltzeari utzi bezain pronto, deskripzioko tresnak eta paperean kontsultatutako bibliografia apalategian utziko dira, hartu ditugun toki berean.

Dokumentuen eskaera

13. Dokumentuen eskaera aplikazio informatikoaren bidez egingen da. Erabiltzaileek zuzenean egiten ahalko dituzte eskaerak ordenagailuetatik, edota aretoko arduradunaren laguntzaz.
14. Dokumentuen eskaera guztiak aretoko arduradunak baimendu beharko ditu.
15. Erabiltzaileek gehienez ere hiru artxibo-unitate eskatzen ahalko dituzte batera. Ez da beste eskaerarik onartuko, harik eta aurreko kontsulta bukatu arte. Erabiltzaile bakoitzak egunero egiten ahal duen eskaera kopurua mugatzen ahalko da, zerbitzuaren funtzionamendu egokia oztopatzen edo eragozten duen salbuespenezko inguruabarren ondoriozko arrazoirik bada.
16. Artxiboak dokumentuen kontsulta mugatzen ahalko du, kasu bakoitzari buruzko legeek diotena betez, bai eta kontserbazio-arrazoiak edo lan teknikoak egiten ari badira ere.
17. Dokumentuen eskaerak egiteko denbora aretoak itxi baino hogeita hamar minutu lehenago amaituko da. Dokumentazioa mostradorean utziko da ixteko ordua baino hamabost minutu lehenago.
18. Kontsulta amaituta, erabiltzaileek aretoko arduradunaren mostradorean utziko dute dokumentazioa.

19. Erabiltzaileek gehienez ere hiru artxibo-unitate erreserbatzen ahalko dituzte gerora kontsultatzeko. Idatziz aurkeztutako aurretiazko dokumentu-erreserben eskaerak onartuko dira. Erreserba guztiak iraungi eta bertan behera geratuko dira aretoa ixten denean jaiegunen bezperan.

Dokumentuen kontsulta

20. Erabiltzaileak dira kontsultatzen ari diren dokumentuen erantzule.
21. Ezin dira dokumentuak erabiltzaileen artean elkartrukatu, ezta besteen mahaietara eraman ere. Debeku da dokumentazioa aretoetatik ateratzea.
22. Lehen kontsultatzen ahal zen dokumentu bat une batetik aurrera kontsultatu ezinik egon daiteke, kontserbazio-egoerak hala eskatzen badu. Erabiltzaileek anomaliarik atzematen badute kontsultatzen duten dokumentu batean, horren berri eman beharko dute.
23. Kontsultatzean, dokumentuen egoera eta baldintzak zainduko dira, saillapena edo ordena aldatu gabe, baita zenbakitu edo ordenatu gabe dagoela uste denean ere.
24. Dokumentuak kontsultatzean, ez da idazteko paperik jarriko gainean, ez da oharrik idatziko, ez da deus ezabatuko edo gainazala kalkatuko, ez da haririk edo sokarik kenduko, eta ez da zikinduko, tolestuko, kaltetuko edo desitxuratuko bestelako baliabideak erabiliz.
25. Koadernatutako dokumentuak atriletan eta indarka ireki gabe kontsultatuko dira, aretoko langileen jarraibideei kasu eginez.
26. Digitalizatutako edo mikrofilmatutako dokumenturik bada, kopia horiek kontsultatuko dira. Salbuespenez, eta kontserbazio-egoerak aukera ematen badu, jatorrizkoa utziko da, Artxiboko Zuzendaritzari idatzizko eskaera arrazoitua helarazi ondotik.
27. Kopia duten jatorrizkoak, antzinako funts bibliografikoa eta mikroformak kontsultatzeko, Artxiboan diren kotoizko eskularruak erabiliko dira eta aretoko arduradunaren ikuskapenaren pean egingen da.

III. DOKUMENTUEN ERREPRODUKZIOA

28. Artxiboko langileek baino ezin dituzte funts dokumental eta bibliografikoak erreproduzitu; eta, horretarako, eskabidea bete eta legez ezarritako tasak ordaindu behar dira lehenik.
29. Bertatik bertara aurkezten ez diren erreprodukzio-eskaerak ere onartuko dira, baldin eta dokumentuon identifikazio zehatza eta indibidualizatua egiten bada, horiek hautatzeko irizpide subjektiboak aplikatu behar ez badira eta horien identifikaziorako bitarteko gehiegi erabili behar ez bada.

30. Erabiltzaile bakoitzak urtean gehienez hiru erreprodukzio-eskaera izapidetu ahal izango ditu modu ez-presentzialean. Eskaera bakoitzak erreproduzitu beharreko bost artxibo-unitate izan ditzake gehienez, Arau hauetan ezarritako mugekin.
31. Artxiboak erreprodukzio-prozedura egokiena zein den erabakitzen ahalko du, dokumentuen jatorriari, antzinatasunari eta kontserbazio-egoerari begira. Halaber, erabiltzaile bakoitzak urtero egin dezakeen erreprodukzio kopurua mugatzen ahalko du, zerbitzu-arrazoiei jarraikiz.
32. Salbuespenez, instalazio-unitate osoen erreprodukzioa onartuko da, Artxiboko Zuzendaritzaren alde aurreko baimena izanda betiere.
33. Artxiboan diren kanpoko funts dokumentalen kopien erreprodukzioek jatorrizkoen jabeen baimen espresa beharko dute.
34. Artxiboak lagatzen dituen erreprodukzioak erabilera pribaturako baino ez dira, eta ikerketa historiko, zientifiko edo kulturalak egitea dute xede. Erabilera horrek ez du eragozten jasotako kopia erakustea hezkuntza edo kultura jardueretan aldi baterako eta modu mugatuan bildutako publiko baten aurrean. Beste edozein erabilera egin nahi bada (argitalpena, erreprodukzioa, erakusketa edo jendaurreko zabalkundeko beste edozein forma) baimena eskatu beharko zaio Artxiboari, idatziz, eta dagozkion tasak pagatu beharko dira.
35. Jabetza intelektualari buruzko araudiaren bidez erregulatutako dokumentazioaren erreprodukzioa, arloaren gaineko indarreko lege-xedapenei jarraikiz egiten da.

IV. ERABILTZAILÉEN KONPROMISOAK

36. Kontsultatutako dokumentuen zati edo laburpenen bat argitaratzen duten erabiltzaileek dohainik emanen diote Artxiboko Liburutegiari argitalpenaren ale bat.
37. Argitaratutako lanetarako erabilitako dokumentazioa aipatzean, Artxiboaren izena (osorik edo akronimoa), funts edo bilduma dokumentalaren izena eta dokumentuaren signatura adierazi beharko dira.
38. Erabiltzaileek jarrera hezia eta higienikoa izango dute uneoro, errespetuz jokatu dute langileekiko eta gainerako erabiltzaileekiko, eta baita dokumentu-funtsekiko eta instalazioekiko ere. Hori bete ez gero, Artxiboko Zuzendaritzak berehala kanporatzeko eta hurrengo bi asteetan Aretoetan sartzeko debekua ezartzeko agindu ahal izango du.
39. Artxiboan sartzeak eta kontsulta- zein erreprodukzio-zerbitzuak erabiltzeak arauok onartzea dakarte berekin. Arauak betetzen ez badira, Artxiboko erabiltzaile izateari utziko zaio eta, kasua bada, dagokion erantzukizun zibil, penal edo administratiboa eskatuko da.

40. Artxiboko Zuzendaritzaren ardura izanen da arau hauetan dokumentuak eskuratu, kontsultatu edo erreproduzitzeari buruz aurreikusten ez diren aferak ebaztea.

173/2024 Ebazpena, uztailaren 16koa, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiarena.